

KOLEGIOA ZINEMA

Ilkasleen fixa

Jon Garagaño eta Aitor Arregiren film bat



EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN
2017



INOR EZ DA ETENGABE HAZTEN

IRUSOIN, MORIARTI, KOWALSKI EN AUNDIA FILM AIE EN KUPON DE ETB EN TVE EN PRODUCCIONES, EUSKO JAURLARITZA EN ICAA EN LAZARIZACION

JOSEBA USABIAGA ENEKO SAGARDOY INIGO ARANEUFU RAMON AGIRRE AIA KRUSE

JAVIER GARCÍA JAVI AGUIRRE ERASO JORDI GARCÍA PASCAL CAIGNE MONTANA LAURENT DUFRECHE RAÚL LÓPEZ JULIENNE STANINA IÑAKO DIEZ SORIN OJEDA IGA MONTAÑA XANTI SALVADOR JULIENNE ARTEQUINA MIKEL SERRANO JAVIER GARCÍA SANDA LARA

MANUELA K. AMANDA ESQUISABEL R. ESPINOSA OLGA CRUZ KENTON ROQUEZ USER T3R JUDITH ANDERSON/ALBA TELMO ESNAI AITOR VITORIA KANDICE LIZ MORALES ANDER SISTIAGA KANDICE XABIER BERTOSA INIGO OBESO INAKI GOMEZ

INTRO: IZAGUIRRE, JOSE-MARI GOENAGA, FERNANDO LARRONDO, KOLDO ZUAZUA, VEREA RODRIGUEZ, ZUBIA, JON GABAND, JOSE-MARI GOENAGA, AITOR ARREGI, ANDON DE CARLOS

B. RUSON

MANUSCRIPT

RECEIVED ☐ FILED ☐

ALINDIYA ALINDIYA

Death

tve

NOTES: AT

RECIBI UN CARAÑO

doi:10.1017/S0022292411000509

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65	66	67	68	69	70	71	72	73	74	75	76	77	78	79	80	81	82	83	84	85	86	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	99	100
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

648

60-446

● **Fitxa teknikoa**

Euskal Herria | 2017 | 1:54

Zuzendaria

Aitor Arregi, Jon Garaño

Gidoia

Andoni De Carlos, Jose Mari Goenaga, Aitor Arregi, Jon Garaño

Musika

Pascal Gaigne

Formatua

2.35, koloretan, digitala

Aktoreak

Joseba Usabiaga : **Martin**
Eneko Sagardoy : **Joaquin**
Iñigo Aranburu : **Arzadun**
Ramon Aranburu : **Antonio**
Aia Kruse : **Maria**

● **Sinopsia**

Euskal Herria, 1836. Lehen Karlistaldian borrokatu ondoan, Martin Eleizegi familiaren baserrira itzuliko da, Gipuzkoara. Orduan, ohartuko da Joaquin anaia gazteena erraldoia bilakatu dela. Berehala, Martinek gauza bakarra izanen du xede: baserri-mundutik alde egitea. Joaquinek, kontrara, han egon nahiko du, herriari eta familia-tradizioei hertsiki lotua baitzaie. Baina, Martin segur da jende guziak pagatu nahiko duela munduko gizonik handiena ikusteko. Ondorioz, Joaquinekin ontziratu eta Europan gaindi bira luze bat antolatuko dute. Anbizioak, diruak eta arrakastak betiko aldatuko dute familiaren patua.


● **Jon Garaño eta Aitor Arregi: bi film egile, urrats erraldoi bat**

Jon Garaño eta Aitor Arregi euskal zinegileak dira, Moriarti produkzio-enpresaren sortzaileetakoak. Filmen arabera postu desberdinetan –gidoia, zuzendaritza, produkzioa, muntaketa– lanean ari dira, Moriarti Produkzioak-eko beste kideekin batera (besteak beste, Loreak filmean, atzerriko film hoberenaren Oscar Saria irabazteko lehiatu zena, 2015ean). *Handia* filmerako lehen aldiz fikziozko film luze bat egin zuten elkarrekin. Drama historiko bat da, egiazko gertaeretan oinarritua. Garaño-Arregi bikotearen film honek Altzoko Handiaren historia kontatzen du. Filmetan taldean lan egitera ohituak direnez, Jon Garañok horri buruz zera dio: *“Elkarrekin lan egiteak presioa partekatzeko aukera ematen digu. Izan ere, presio handia jasaten dugu film bat egitean, eta larri ibiltzen gara, diruarekin bereziki. Denborarekin, konturatu gara gure filmetan ez dugula sinadura pertsonalik, talde-sinadura bat baizik.”*

● **Bi anaiak**



© Moriarti - Handia



© Moriarti - Handia

2017an estreinatu film honen izenburua Handia da. “Handia” hala idazten da euskara batuan; aldiz, “Aundiya” erraten da, Gipuzkoako herri ttipia den Beterriko azpieuskalkian. Hona hemen Handia filmaren bi afixa: artoski konpara itzazu eta ondotik saia zaitez filmaren gaia eta historia asmatzen.

①

Xeheki iker itzazu koloreak, jantziak eta pertsonaiak. Zure ustez, zer garaitan kokatzen da filmaren ekintza ? Zer istorio mota konta dezake ?

②

Lehen afixan esaldi hau agertzen da: “Inor ez da etengabe hazten”. Nola ulertzen duzu esaldi hori ?

③

Zer irudika daiteke, bigarren afixan N letra luzatzen duen metro-xingola ikusirik ?

● **Joaquin eta Martin, txanpon beraren bi aldeak**

Handiaren historiatik haratago, filmak Joaquin eta Martin anaien arteko harremana kontatzen du. Akromegaliak jota dago Joaquin. Guk gehienok nerabezaroaren amaieran handitzeari uzten diogun bitartean, akromegalia duten pertsonak etengabe eta hil arte handitzen dira. Martin anaia, aldiz, geldiarazia bezala dago, gerlako zauri batek eskuineko besoaren balioa galarazi diolako. Horregatik, baserritik urrun bizi nahi du, bidaiatzea amesten du eta mundu modernora egokitzen saiatzen da. Joaquin, ordea, babestuta sentitzen da baserrian, eta familiako tradizioei atxikia zaie. Bi anaiak modernitatearen eta tradizioaren artean ezin hautatuz dabilta. Izan ere, XIX. mendeko garai historikoak protagonistek ulertu ezin dituzten aldaketa sozial handiak ekarri zituen. Aldaketa horien ondorioz, azkenean elkarrengana hurbiltzen dira, bi anaiak familiaren baserrian pausatzen baitira.

● **Faltsutze-teknikak : Handia eraikitzea**



©David Herranz - Townpage Handia

Handia filmak efektu berezi hoberenen saria irabazi zuen Goya Sarietan (Cesar Sarien parekoak Espainian). Filmaren jokagai tekniko handienetako bat da ikusaraztea Joaquin 2,44 metro gora dela, Eneko Sargadoy aktorea egiazki 1,84 metro gora delarik. Emaitza hori lortzeko, hainbat metodo erabili zituzten teknikariek. Eszena batzuetan, aktoreak zango-makolak erabili zituen. Ondotik, postprodukzioan, burua digitalki loditu zitzaion, bere gorputzarekiko proportzionala izan zedin. Eskuko protesiak ere erabili ziren, arrazoi beragatik. Baina, beste eszena batzuetarako, egiazki 2,40 metro gora den Saad Kaiche saskibaloi jokalaria eta aktoreordeari dei egin zitzaion. Filmean, Joaquinek harekin topo egiten du Ingalaterran. Baina, bigarren mailako rol horretaz gain, Kaichek Joaquinen rola bete zuen beste eszena batzuetan. Gero, postprodukzioan berriz ere, Saaden aurpegiaren ordez Sagardoyrena ezarri zen. Gainera, makillatzaileek protesi ugari sortu zituzten Joaquinen aurpegirako. Akromegaliak gorputzaren eta aurpegiaren zati batzuen ezohiko

handitzea eragiten du, hala nola kopeta, bekain, matelezur eta matela gainena. Pasticheak sortu behar izan ziren Joaquinen aurpegia denboraren eta eritasunaren aitzinamenduaren arabera alda zedin. Efektu bereziak funtsezkoak dira filmerako, Handiari bizia emateko. Bada, Handia filmean, arras kausituak dira, ez baitira ikusten. Eta bakar-bakarrik balio dute Joaquinen pertsonaiari egiazkotasuna emateko.

● **Barnetik kanpora**

Joaquin erraldoia, maiz, barneko espazioetan filmatzen da, familiaren baserrian, karrozan edo ikuskizun-aretoetan. Ingalaterrara egindako bidaian, graziazko memento bat bizitzen du, bera bezalako beste erraldoi batzuekin topo egiten baitu kostaldean. Konpara itzazu beheko bi fotogramak.

①

Lehen irudia bi anaien baserrian kokatzen da, eta Martinek Joaquin ganerrean ustekabean harrapatzen eta gordeka jaten ikusten duen mementoari dagokio. Deskriba itzazu fotogramaren argitasuna eta Joaquinen postura. Nolakoa itxura ematen diote Handiari ?

②

Bigarren irudia Ingalaterran kokatzen da. Joaquin lehen aldiz bainatzen da bere bizian. Zer pentsarazten dizu bigarren irudi honek lehen irudiaren aldean ?

③

Konpara ezazu nola filmatzen diren bi irudiak. Zein da planorik zabalena, eta zein hertsiena ?



● Sekuentzia baten analisisia

Martin anaiarekin eta Arzadun enpresariarekin batera, Migel Joaquin Handia lehen aldiz agertzen da Madrilen jendaurrean. Bikote batek eta seme-alabek osatzen duten familia baten erreakzioaren bidez ikusten da Arzadunek irudikatutako ikuskizuna.


- ① Zer sentimendu adierazten ditu familiak 2. eta 4. fotogrametan, Joaquin oihalaren gibeletik atera baino lehen ?

- ② Joaquin oihalaren gibeletik atera ondoan, zer egiten dute haurrek ? Liluraturik, libreturik ala ikaraturik dirudite ? Eta nola dago Joaquin ?

- ③ L5. eta 7. fotogramak angelu kontrapikatuan filmatuak daude (behetik gora) eta 6. eta 8. fotogramak angelu pikatuan (goitik behera). Zer pentsarazten dizu kamerak haurren eta Joaquinen artean sortutako distantzia horrek?



ZINEMAREN HIZTEGITXOA



Petit lexique du cinéma

Zinemaren hiztegitxo



● Prononciation Ahoskera

En euskara, on prononce toutes les lettres.
Par exemple eu se dit « éou », au se dit « aou »
(prononcé en une seule syllabe).

U se prononce « ou »
E se prononce « é »
Z se prononce « ss »
S se prononce « sh »
X se prononce « ch »
G se prononce « gu »
J se prononce « y »
Ñ se prononce « gn »
N se prononce « nn »
R son doux entre 2 voyelles (ere)
RR se prononce comme le « r » en français.

Dans certains noms communs, le « -a » de la fin fait partie intégrante du mot. Les articles singulier (-a) ou pluriel (-ak) apparaissent ici sous une épaisseur différente.

Remarque :

Ce lexique a fait l'objet d'une validation linguistique par l'OPLB, privilégiant les mots les plus usités sur le territoire et respectant les règles d'usage du basque unifié. Il peut exister localement d'autres variantes.

Oharra:

Hiztegia agertzen diren hitzak, EEPk baieztatu ditu, lurraldean baliatuenak direnak lehenetsiz; tokian toki, beste aldaera zuzen batzuk ere izan daitezke

● Catégories cinématographiques Zinema sailak

Adaptation : Egokitapena
Animation : Animazioa
Biographie : Biografia
Documentaire : Dokumentala
Fiction : Fikzioa
Film : Filma
Film d'auteur : Sortzaile filma
Image de synthèse : Ordenagailuzko irudia
Remake : Bertsio berria



● Genre de films Film mota

Chronique sociale : Kronika soziala
Comédie : Komedia
Comédie romantique : Komedia erromantikoa
Drame : Drama
Fantastique : Fantastikoa
Film d'horreur : Beldurrezko filma
Film historique : Historia filma
Film policier : Polizia-filma
Science-fiction : Zientzia fikzioa



● Durée Iraupena

Court métrage : Film laburra
Long métrage : Film luzea
Moyen métrage : Film ertaina

● Métiers Lanbideak

Cameraman : Kameraria
Distributeur : Banatzailea
Exploitant : Zinema-jabe / Zinema-gela zuzendaria
Producteur : Ekoizlea
Réalisateur : Film egilea / Zinegilea



● Autour du film Filmaren inguruan

Avant-première : Aitzin estreinaldia
Bande annonce : Trailer / Aurrerakina
Box office : Zinemako sailkapena
Censure : Zentsura
Cinéphile : Zinemazalea
Cliché : Klíxea
Critique : Kritika
Rétrospective : Atzera begirakoa
Teaser : Kitzikiragarkia
Première : Estreinaldia

● Le son Soinua

Bande originale : Jatorrizko soinu-banda
Bande-son : Soinu-banda
Bruitage : Soinu efektuak
Cinéma muet : Zinema mutua
Compositeur : Musikagilea
Dialogues : Elkarrizketak
Doublage : Bikoizketa
Ingénieur du son : Soinu-teknikaria
Sous-titres : Azpiztituluak
Version originale : Jatorrizko bertsioa
Voix-off : Off-eko boza

● Filmer le cinéma Zinema filmatu

Angle de prise de vue : Hartualdi angelua
Arrêt sur image : Irudi gelditzea
Cadrage : Enkoadratzea
Contrechamp : Kontraeremua
Contre-plongée : Kontrapikatua
Effets spéciaux : Efektu bereziak
Fondu : Itzaltzea
Gros plan : Lehen plano handia
Hors champ : Eremuz kanpoa
Panoramique : Panoramikoa
Plan large : Plano zabala
Plan séquence : Sekuentzia planoa
Plongée : Pikatu / Goitik beherako hartzea
Ralenti : Kamera geldoa
Zoom : Zooma



● Les étapes Urratsak

Montage : Muntaketa
Postproduction : Postprodukzioa
Prises de vues : Filmaketak
Promotion : Promozioa
Repérages : Leku bilaketa
Scénario : Gidoia
Script : Script / Film idazkia
Storyboard : Storyboard / Irudi-gidoia
Synopsis : Sinopsia
Tournage : Filmatzea

● Distribution Aktoreak

Agent : Agentea
Carrière : Karrera
Cascade : Arrisku-eszena
Casting : Aktoreak
Coulisses : Hegalak
Doublure : Ordezkoa
Figurant : Figurantea
Héros : Heroia
Loges : Aldagelak
Personnage : Pertsonaia
Plateau : Filmaketa platoa
Régie : Kontrol-gela
Rôle principal : Rol nagusi / Paper nagusia
Star : Izarra



● Au cinéma Zineman

Art et essai : Arte eta entsegua
Ecran : Pantaila
Final : Azken eszena
Générique : Kredituak
Introduction : Sarrera
Multiplexe : Gela anitzeko zinema
Projection : Emanaldia
Salle de cinéma : Zinema gela
Scène : Eszena
Spectateur : Ikuslea
Ticket : Txartela
Popcorn : Krispeta-artoa

